

Zaztaparrak Asti Taldeak asanbladea deitu dau hilaren 8rako

13. orrialdea

San Balendin jaia Eleizondon

Zeanuriko Eleizondo auzoan San Balendin jaia ospatuko dabe hilaren 12an. Santuaren irudi barriztua Piedadea izenaz ezetuten dan ermitara eroango dabe prozesinoan eta gero ondoan dagoan artea neurtuko dabe. Orain dala 49 urte hasi ziran eleizondoztarrak Piedadeko artea neurtzen eta orain 9 urte berreskuratu eben tradizioa. 12. orrialdea



Iraia Garciak Bizkaiko Kros Txapelketea irabazi dau seigarrenez

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

267

2017ko zezeilaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org



Agate Deunaren koplak

Ane Legarretaren zuzendaritzapean ekingo deutso Arratiako Koruak Arratiatik eta Arratiatik kanpoko bere ibilbideari Santa Ageda bezperako koplak kantetako zezeilaren 4an. Bilboko Begoñako Basilikan eta Santiago Katedralean, koplez gainera, beste hiru kantu be

kantauko dabez korukoak. Areatzatik urten eta Areatzan emongo deusie amaiera egunari Arratiakoak.

Beste koru asko be ibiliko dira Arratian zehar santaeskean. Santa Ageda egunean, Zeanuriko ermitan, martirioa kontetan dabezan koplak zaharrak be kantauko ditue. 6. orrialdea

Zuluagari alkarrizketea



Mikel Zuluaga zeanuriztarra desobedientzia zibilaren aktibista da. Muga eta hesien kontrako burrukan egiteko erremintzat dauka Zuluagak, Giza Eskubide urraketa larrien

aurrean erabili beharrekoa. Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformeak hori ondo transmitiduten jakin dauala eta giza mimentuetako eredu bihurtu dala dino. 8. eta 9. orrialdeak

AREATZA

Antolaketea hobetuteko aurrekontuak

Dagozan baliabideak hobeto eta modu eragingarriagoan erabiltea eta parte hartze prozesuetan herritarrak eskatutakoa aurrera eramateko helburu daukien kontuak onartu ditue Areatzan. Hori dala eta, udaltxearen berrantolaketea eta parte zaharreko peatonalizazioak eroango dabe diru partidarik handienak.

Areatza Ueman sartu danez, euskereari bultzadea emoteko diru partidak aitatu behar dira. Lau dira: Berbalagun proiekturako, euskera ikasteko diru laguntzak, Toponimia landuteko eta Korrikarako.

Umeentzako parkeak be barriztatu egingo dabez eta auditoria luminiko bat egiteko be dirua aurreikusi dabe. Arratiako Udalen Mankomunitateko Gazteentzako proiektuetarako be dirua ipiniko dau Areatzak. 5. orrialdea

IGORRE

Beharbide programarako diru partidea ia laukoztu egin dau Igorrek

2017ko aurrekontuak, kirola, kultura eta enplegua balioetsi gura dabe Beinat Anzola alkatearen esanetan. Legegintzaldiko apusturik potenteena enplegua dala eretxita, Beharbide programeari bultzadea emon gura izan deusie eta aurtengo kontuetan, 20.000 eurotik 73.230 eurotara igon dabe diru partidea. Programa honetako teknikariak Errota programako teknikariagaz ipiniko dira kontakuan sinergiak sortzeako. 5. orrialdea

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

IGORRE

Euskera erabilerea igon da Igorren

Soziolinguistikako Klusterrak 2016an egindako euskerearen kale erabilerearen neurketeak sano emoitza onak emon dauz Igorren. 2011tik sei puntu t'ardi igon da, %46,8tik %53,3ra pasatuz eta lehenengo kale neurketea 2001ean egin zanetik 20 puntu egin ditu gora: orduan kalean euskeraz egiten ebenak ez ziran heren batera heltzean (%32,9) eta orain erdiak baino gehiago dira. Igorreko euskera ezagutza indizea %75,25 zan 2011n.

Martiaren 16an aurkeztuko ditue datu guztiak jentaurrean. 7. orrialdea



ARRATIA KOLOREETAN



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Urtailaren 30etik zezeilaren 5era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 6tik 12ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 13tik 19ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arriorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arriorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Zeberio-Artea

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arriorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Ines Arenas, Iker Perez eta Ismael Martínez (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tirada: 7.000 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Zeanuriko anbulategiaren kudeaketa eskasa

Zeanuriko EH Bilduk, Osakidetza gure herriko anbulategian egiten dabilen kudeaketa eskasa salatu gura dau. Udaltzatzen salatu dogun moduan, atzen aldian, hainbat egunetan anbulategi arreta barik izan gara eta beste hainbatetan mediku eta erizainaren ordutegia murriztu egin deuskue.

Modu berean, baliabide materialak be urriak dira anbulategi honetan, gaur egun osasun arloan oinarritzekoak eta ezinbestekoak diran tresnak eta materialen falta nabaria da.

Hirugarren mailako herritarrek gara landa eremuko biztanleak, ala?

Zeanuriko osasun arretaren kalidadea bermatzeko, arreta zerbitzua 08:00etatik-15:00etara egotea eskatzen dogu, eta horretarako Osakidetza behar beste kontratazioak egin dagiazan eskatzen dogu.

Zeanuriko EH Bilduk ez dau onartuko Zeanuriko biztanleen osasun eskubideak murriztea, eta gure esku dagoan guztia egingo dogu zentzu honetan.

ZEANURIKO EH BILDU

Igorreko Kiñu-Gztx-ri erantzun irekia

Igorreko EAJ-PNVko udal taldearentzat albiste pozgarria da ikus-tea Kiñu-Gztx-ko arduradunak eurak izan dirala gure herriko Gaztetxeak gaur egun bizi dauan egoeraren inguruan daukaguzan kezka azaltzeko aukerea emon deuskuenak.

Guri leporatzen deuskuen hori saihesteko, auzi hau publiko egitean politikarako erabilia izan ez daiten, hain zuzen, baina gazteen eta Gaztetxeak erabiltzaileen segurtasunaz kezkatzeari une bakar batez itxi barik, esan behar dogu egia dala hainbatetan gure zailtza guztiak Igorreko Udalaren bidez bideratu doguzala eta soilik gobernu taldeagaz eta udal teknikariagaz berba egin dogula.

Horreek guztiak esan ondoren, hurrengo honeek argitu gura doguz:

- Gizartearentzat aberasgarri jotzen dogu edozein alkartek edo taldek bere baloreak eta talde barruan partekatzen dauan proiektua ulertzeko modua adierazoteko aukerea izatea eta xede horregaz alkartzea. Kasu honetan, gaztetxe proiektua eta bere autogestinoa.

- Baina, autogestino hori amaitzen da Gaztetxea erabilten da-

ben personen eskubideak hasten diran puntu berean, hau da, jarduera desbardineta deitzean diran ume eta nagusien eskubideak. Edozein herritarrek daukan eskubideaz ari gara, jarduera ireki eta publikoetara parte hartzea deitua danean, eta persona guztiak daukie jarduera horreetan segurtasun osoa bermatzen dan egoeran parte hartzeako eskubideak.

- Benetan uste dogu guztiz bateragarriak dirala Gaztetxearen barne autogestinoa eta hirugarren personai zor jakien segurtasuna. Eta Igorreko zinegotzi guztion derrigorra da (ez litzakeke soilik EAJ-PNVkoen erantzukizuna izan behar, hori emoten dauan arren) hori lortzeako lan egitea.

- Kiñu-Gztx alkarteko arduradunai eskatu gura deutsegu Gaztetxeari buruz bidali doguzan idazki guztiak publiko egin dagiazala. Hauxe da horreen bidez eskatu doguna: "Udala Gaztetxeo titularrakaz lankidetzan aritu daitela behar beste neurriak hartzeako", "gazteak beren esparrua izatea eta alkartzeko lekua disfrutetan jarraitutea gura dogu eta alkatearen egitekoa da toki egoki eta seguruan egin dagiela", eta "udal teknikariak txosten teknikoa egin dagiela eta lanak udalaren kontura egin daitezala".

- Non geratzen da, beraz, "desgaste kanpaina" hori, idazki guztiak gobernu taldeari eta teknikariari soilik bidali diranean? "Kanpaina" ete da eskari guztiak administrazio barruan egin diranean? Ez ete dogu danok defendiduten autogestinoa eta segurtasuna buztartu behar dirala?

- Gaztetxeo arduradunai, EH Bilduko udal taldeari eta alkateari eskatzen deutsegu informazioa emoteko bilera irekia deitzea eta bertara udal teknikariak joan daitezala, gaiari tratamendu serio argi eta gardena egiteko eta Igorreko edozein herritarrek lehen eskutik eta interpretazio okerrik barik ezetu dagian EAJ-PNVk gai horren inguruan aldeztu dauan jarkerea.

IGORREKO EAJ-PNV

ERETXIA



SAIOA ZUBIAUR URRAZA

Kazetaria

Sara eta Izar, patriarkaduak erditutako seme osasuntsuaren biktima

Andra burrukalariaren oihu ozenak bueltan ekarten dauan oihartzun baltzaren arrasto gordina. Norbere bizitzan burujabe eta iraultzaile izatearen ordaina. Sara eta Izar, dirana eta izan gura dabena aldarrikatzeagaitiko, zigor bikotxa. Espetxea eta indarkeria matxistea.

Azken asteotan, jaso dogun albistearen gordintasanak, barrenak, indarrez, astindu deuskuz: Sara Majarenas euskal preso eta haren alaba Izar, patriarkaduak erditutako beste seme osasuntsu baten biktima izan dira. Bikotekide ohiak banaketa prozesuan egoan amaren askatasun eza baliatuz, alaba Picassenteko espetxetik bisitarako atera eta bizkarretik, labanaz, egin deutso eraso bi urteko txikiari. Ostean, polizia-etxean bere burua aurkeztu eta hil egin dauala esan dau. Larrialdi zerbitzuak gizonaren etxera iristean, lari baina, zorionez, bizirik aurkitu dabe Izar txikia. Hil ala biziko bi ebakuntza egin ostean, Valentiako Santa Fe ospitalean jarraituten dau, senide eta lagunak lagunduta.

Ez dago esan beharrik zikina besteko koldarra dala sakabanaketa politika krudel eta neurtu batek eraginda, euren herritik 540 kilometrorra eta giltzapetuta bizi diran ama-alaben egoera babesgabea baliatuz, haurra heriotzaren atarian abandonatzerainoko mendeku-gosea.

Beste behin, sistema patriarkal honek, argi erakutsi deusku, bere biziraupen propiorako balioetan ondo dituala hezten eta bermatzen laztasun honetako ekintzak burutzeko kapazak diran gizasemeak. Izan be, Sara eta Izarren bizipen latz hau ez da, ezelan be ez, burua galdu dauan aitaren eta bikotearen ekintza isolatua, txikitatik ezarria jakun heziketa matxistearen ondorio dramatiko baina. Bortxaketak, irainak zein kolpeak dirala, egunez egun eta etenbarik, han eta hemen, espetxean, ikastetxean, lanean, kalean zein etxean errepikatzen dan patroia da honakoa.

Hain zuzen be, amesgaiztoa errealidade bihurtuko dabene morroiak eskola beretik neurri barik datoz. Horra, 2017a hasi besterik egin ez dogula, Euskal Herrian bertan, Portugaleten ama labanaz hil dauan semearen eta Burlatan bikotea akatu eta gorpua Arga ibaira bota dauan senarraren kasua. Jentarte eredu honetan poderearen hegemonia gizonak daukala zeinek baino zeinek hobeto ikasiak. Oraingoan, hiru gizonok, agintea iraun arazoteko tresnarik muturrekoena eta bortitzena erabili badabe be, androk egunero daukagu parez pare aitaturako gailentasun egoera elikatzeo makinaria osoa. Etenbarik lanean. Eta zer esan sistemeari aurre egin deusien andrak "emakumetzeko" helburua daukien gizonentzako eregitako espetxean bizi eta indarkeria matxistea euren azaletan sufridu behar izan dabene Sarak eta Izarrek entzun behar izan dabene makina soinuaz.

Hamaika eraso sufridu dogu daborduko eta ezin deusagu itxi esateari ez dogula gura personak eta, bereziki, androk jabego pribadu bihurtzen gaituan sistema kapitalistan biziten jarraitu. Horregaitik, klase kontzientziari heldu eta sistema patriarkalaren zutabeak jantzan jarriko dituan oihu ozenak, bueltan, aske egingo gaituan oihartzun feministea ekarriko deusku. Izan be, libre izango bagara, garana eta izan gura doguna berbaz eta ekintzez burukatu doguzalako izango da.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, berrik eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Hozkirri



Neguko hotzak dirala-eta, hona hemen gero eta gitiago esaten dan hozkirri berbea (oskirrie, agoskatuta). Eguraldi freskoak izaten dira hozkirriak. Hozkirri berbeak baina, baditu beste esangura bi honeek be Arratia inguruan: 1. Kanpoko freskureak eraginda, personeak gorputzean asmetan dauan aldikada bateko hotza (sinonimoa: hotzikara); eta 2. Hotza errez edo sarritan sentiduten dauan persona (sinonimoa: hozpera).

LUMATUTEN



XABIER LAMIKIZ

Egia-ostea
ate joka

Oxford hiztegiak 2016an arrakasta gehien izan dauan berbea izentau barri dabe. Oraingoan neologismo edo berba barri bateri egokitu jako ohorea: *post-truth*. *Posverdad* gaztelaniaz, egia-ostea euskeraz. Berez barria ei dan kultura politiko bateri lotutako berbea da: "egia-osteko politikea". Emozinoak eta sentimentuak egiaren aurretik jartzean datza. Zertarako? Agian politikariak botaten dituen guzurrak herriak egiazat hartu dagiazan? Neurri baten bai, baina hori politikariak betidanik egin daben zerbaist da. Oraingo hau desbardina da. Gauza bat da egia ezkatzea, edo guzurrea esatea, eta gero, beranduago, harrapatua izatea, edo behintzat horren bildur izatea. Halakoak milaka ikusi doguz. Beste gauza bat da egia bera gaindituztat emotea, eta zuzenean guzurrera joatea, lotsa barik, harrapatua izateak jada

ez daukalako ondoriorik, ezta garrantzirik, ez orain, ez gero, ez inoz. Berez guzur-ostea be bada, biak, egia eta guzurrea, emozinoen menpe gelditzen diralako. Hori gertatzen danean politikariak edozer gauza esan edo egin daikie. Batzuk honeri populismoa deitzean deutsie, baina hori baino gehiago da, askoz gehiago, eta, nire ustez behintzat, askoz bildurgarriagoa be bai.

Egia-osteari buruz eztabaida ugari dago. Benetakoa da edo gertakari konkretu batzutatik azkarregi atera dogun ondorioa besterik ez? Nik bene-benetakoa dala esango neuke. Pentsau Brexitean, pentsau Donald Trumpen garai-penean, pentsau Europa osoan muturreko eskoiko alderdiak izaten dabizan arrakastan, pentsau PParen sendotasunean. Mundu honetan datu estadistikoak jada ez dabe ezertarako balio, objektibotasuna bera kontzeptu zaharkitua dalako. Trumpen jarraitzaileen ehuneko 68ak guzurtzat jotzen ditu Amerikako Estatu Batuetako gobernuak ekonomiari buruz argitaratzen dituan datuak. Britainia Handiko biztanlegoaren erdiak baino gehiagok uste dau gobernuak dinoana baino askoz etorkin gehiago dagozala euren herrialdean. Bardin jakie egia zein dan. Sentiduten dabena da gauza garrantzitsu bakarra. Galdera saihestuezin bat: nora eroango gaitu egia-oste honek ezer egiten ez badogu?

ZERTZEAN



JON ARTETXE



BEGI TXINDORRA

Lemoako Udalak lau gudariaren gorpuzkiak hiloberatu ditu Elgoibarko Duintasuneko kolunbarioan.

Urtilaren 30ean, Lemoako Udalak Elgoibarko Duintasuneko kolunbarioaren inaugurazioan hartu eban parte eta Lemoatxen 2016ra arte topautako lau gudariaren gorpuzkiak hiloberatu ebazan bertan.

Heriotzeak ez dau dana ezabatzen. Ez behintzat, personen duintasuna. Ez izenik, ez bizitzaren errastorik geratzen ez danean be, personari zor jakon duintasun preminak, hamarkada eta belaunaldietan zehar irauten dau, galtzaile eta isilduen Egia, Justizia eta Erreparazio eskubideak ez daukie iraungitze datarik eta.

Lemoako Udalak orain dala 5 urte hartutako memoria historikoaren inguruan hartutako konpromisoa beteten jarraituten dau. Memoriak egiten gaitu gizaki. Garana neurri handi baten gogoratzen doguna da. Eta justiziaren aldeko burrukan ezinbesteko tresna.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

AREATZA

Udaletxearen berrantolaketa eta parte zaharraren peatonalizazioa aurtengo proiekturik handienak

2017ko udal aurrekontuak egiteko parte hartze prozesuan, parte zaharraren peatonalizazioa herritarrak gehien eskatutakoa izan zan. Horixe eta udaletxe berrantolaketa izango dira diru gehien eroango daben proiektuak. 2017ko udal kontuak 1.478.814,40 euroko diru sarrerak aurreikusten dabez eta 1.478.650,38 euroko gastuak.



Areatza.

Erredakzioa

Kontuak urtailean onartu ziran EH Bilduren aldeko botoak eta EAJ-PNVren kontrakoak. Aurrekontuok jasoten dabez hiritarren ekarpenik garrantzitsuenak, herriko erdiguneko peatonalizazioa, umeen parkeak txukuntzea eta ugerleketan konponketak egitea dira, besteak beste. Oinezkoentzako gunea edo peatonalizazioa egiteko 90.000 euro aurreikusten dira, baina 25.000 euroko diru laguntza izatea espero dabe udal-letetik.

Energia gastua ezetu eta hobetuteko auditoria luminiko bat egiteko be diru partidea sartu dabe. Baita, udal eraikinak zelaz dagozan eta ze erabilera emon ahal jakien jakiteko azterketa egiteko be. Legeak agindutako moduan, Artxiboa berrantolatuten hasi da Areatzako Udala eta horretarako 24.000 euroko diru partidea aurreikusten da 2017ko kontuetan.

Euskereari bultzadea

Euskerea bultzatzeko lau partida izango dira aurtun. Areatza Ueman (Udalari Euskaldunen Mankomunidadea) sartu da eta, Arteagaz batera Berbalagun proiektua ipiniko dau martxan. Gainera, eus-

kerak ikasteko diru-laguntzak beti urri geratuten zirala ikusita, AEKgaz batera estimazino bat egin dau Udalak, eta eskaera osoa kubriduteko handitu egin dabe aurtengo diru partidea. Korrikaren inguruko ekitaldietako be egongo da dirua. Eta toponimia landutako proiektua ipiniko dabe martxan.

Areatzak hurrengo hiru urteetako konpromisoa hartu dau Arratiako Udalen Mankomunidadeagaz Gazte proiektuetarako dirua ipinteko. Hau da, 2017an, 2018an eta 2019an Areatzak 7.000 euro inguru ipiniko ditu urte bakoitzean.

Horrezaz gainera, AUM Arratiako droga konsumoaren gaineko azterketa bat egiten dabil. "Emoitzak dakiguzanean ebatziko da ze interbentzio egin eta ea hori interbentzioa mankomunidadeetik egiten dan ala udal bakoitzak egiten dauan. Guk diru partida bat jarri dogu mankomunidadearen bitartez egiten ez bada Areatzako Udalak egin dagian. 5.000 euroko diru partidea" azaldu deutso BEG-Turi Maitane Diez zinegotziak.

Gizon eta andren artean aukera baidintasuna sustatzeko 11.000 euro dagoz aurreikusita.

EAJ-PNVren ustez kontuak helbururik ez

EAJ-PNVren ustez kontuak ez daukie helburu zehatzik, ezta aurreko urtekoakaz loturirik. Igazko aurrekontuetako partida batzuk gastau barik geratu ziran. Holan, igaz enplegua landuteko 7.000 euro egozan eta ez ziran erabili. Aurtun ez dago horretarako diru partidarik. Euskerearen erabilera bultzatzeko be 8.500 euro egozala aurreikusita eta 1.450 euro baino ez zirala gastau salatuten dabe jeltzaleak. Eta udal eraikinetarako diru partidea jarri aurretik, beharizanak aztertu eta proiektu bat egin beharko litzatekela aurretik uste dabe.

IGORRE

Kirola, kultura eta enplegua balioesten dabez kontuak onartu dabez

Urtailearen 16an onartu ebezan Igorren 2017rako kontuak, EH Bilduren aldeko 6 boto eta EAJ-PNVren kontrako 5 botogaz. Igaz baino 34.000 euro gitxiago izango ditu Igorrek, 4.334.469 euroko aurrekontua, hain zuzen be. Aurrekontu sozialak dirala dino alkateak, igorretarren ondoizatea balioesten daben proiektuak bermatzera jo dabelako.

EAJ-PNVk kontrako botoa emon eban, aurrekontuan agertzen diran baliabideak "erabat eskasak" diralako aurrekontuetan sartu diran proiektuetarako eta behargin lanpostuen zerrenda barriaren proposamenik ez ebelako jaso.

Erredakzioa

Kultura partidea bitan banandutea ebatzi dabe Igorren. Bata, Kultur Etxeko programazinoak gastuak ordainduteko eta bestea, herrigintzatik, alkateak proposatutako ekintza kulturalak egiteko. Kiroldegirako igaz baino 3.000 euro gehiago egongo dira. Ondozateari jagokonean, adinekoakaz herri lagunkoia izateko proiektua eta enplegua sustatzeko programak indartuko dabez. Edadekoentzako jarduerak egiteko diru partidea 5.000 eurotik 20.000 eurora igoko da. Izan be, aurtun herri adeitsua izateko programearen diagnostiko fasea amaitutea aurreikusten dau Igorrek.

Enplegua sustatzeko, Beinat Anzola Igorreko alkatearen arabera, "legegintzaldiko apustu potentea" dan Beharbide programeari indar gehiago emon gura deutsee. "Programa martxan danetik Igorreko langabezi-tasa %12tik %9ra jeistea lortu dogu eta horregaitik 20.000 eurotik 73.230 eurotara igo dogu diru partidea". Programa horren barruan, igaz enpresetara egindako bisitakaz jarraitu eta eskualdera zabalduko dabez, administrazioan lanean sartzeako bete beharreko baldintza eta prestakuntzeari buruzko saioak egongo dira eta zenbait prestakuntza kursotarako diru laguntza eskaerak egingo ditue.

Beharbide Proiektua daroen teknikariak Errotak kontratau barri dauan teknikariagaz kontaktuan jarri eta sinergiak aztertzen dabilz alkarlan horretatik sortutako proiektuak bultzatzeko.

Agirre Lehendakaria kalean fase barriari ekingo deutsee

Agirre Lehendakaria kalean egindako lanen gaineko aldeko eta kontrako eretxiak jasoten dabilzala dino alkateak. Horregaitik hurrengo fasea diseinetan hasiko dira eta herritarrakaz batera "oso-



Igorre.

Argazkia: Oriol Fernández Martí.

tuten joango dira". Lasarte parkean egin gura dan estalkiaren diseinuan be hartuko dabe parte igorretarrak.

Gainera, aurtun be, Arratia errekearen ondoan aisialdirako gunea edo "hondartza", Arantzazura oinez joateko bidea eta Olabarrin umeen jolasentzako estalki bat egitea aurrikusita dagoz.

Alkateak inbersinoetarako diru kopuru txikia dagoala, baina "2016ko erremanteagaz" aurrera eroan gura diran proiektuak hainbat dirala dino. EAJ-PNVk bere interbentzioan, diru-garakinari buruzko balorazio bat egitea eskatu eban, datu horren faltan ezinezkotzat jotzen ebalako aurrekontuak gauzatu leitekezan jakitea.

Lanpostuak berrantolatuten

Personaleko gastuetarako igaz baino 75.000 euro gehiago aurreikusi ditue 2017ko kontuetan. Izan be, plantillaren zati handi bat jubiletako edadera ailegetan dago eta giza baliabideak berrantolatuteko plan bat egin gura dabe. Gainera, udal beharginen postuen definizio eta balorazioa 2001etik eguneratu barik dago. Udaleko funtzionamentua hobetuteko asmoz, lanpostuen

antolamentu barria onartuko da.

Harreran beste administrari bat ipiniko da herritarren arreta zerbitzua martxan ipinteko, udala herritarrengana hurreratu eta herritarrak tramite txikiak zerbitzu honen bidez egin ahal izateko.

EAJ-PNVk lanpostu zerrenda barriaren proposamenik ez ebalako jaso eta eskatu eban "orain ez gehitzea aurrekontuetan" eta proposamen zehatz bat dagoenean, eurak eta ondorio ekonomikoak banan-banan aztertutea.

Egoera finantziario "saneaututa"

2017ko aurrekontuetan diru gitxiago eukiteko errazoa, Foru Aldundiak kalkuletan dauan Udalkutxaren jeitsieran dago, 150.000 euro gitxiago, hain zuzen be. Dana dala, IAE eta IBI zergetan alta barriak egon dirala eta 75.000 euroko gehikuntza egongo dala dino alkateak, Udalkutxaren jeitsiera leunduz.

Igorreko Udalaren egoera finantziarioa nahiko saneauta dago alkatearen eretxian. "Aspaldiko kreditu bat dago oraindino pagau barik, baina kreditu horrek urtero 79.000 euroko desentbolsoa suposatzen dau eta 10 urtetan ordainduta izatea kalkuletan da".

IGORRE

Gazte Akelarrea Igorren



Erredakzioa

Laugarren urtez jarraian, Ernai eta Aitzina Ezker Abertzaleko gazte antolakundeak, ospatuko dabe udabarriko ekimena apirilaren 13, 14 eta 15ean. Aurtengoa Igorren izango da. Euskal Herri osoko militanteak batuko dira Gazte Akelarrea izeneko ekimenean.

Aurtengo ekimena martxa eta topagunearen "nahasketa" bat izango da. Partaideak, apirilaren 13ko arrastian urtengo dira Zornotzatik martxan, Igorrera gaubez helduteko.

Independentziaren aldeko ekimen honek, egitarau kultural eta politiko zabala izango dau: berbaldiak, mahai-inguruak, tailerrak, antzerkia, kontzertuak eta abar.

IGORRE

Dendetan konsumoa bultzatzeko, mila bono ipiniko ditue eskuragarri

Erredakzioa

Igorreko Udalak, Arratiako Merkatarien Elkartek (AME) eta La Caixa-k "Bono Denda" deritxan kanpainearen lehenengo edizioa aurkeztu dabe. Eguberri garaiaren ostean herritarri erosketetan lagundutea eta Igorreko dendetan konsumoa suspertzea da honen helburua. Aurtengo kanpaina zezeilaren 20an hasiko da eta martiaren 31n amaituko da. Mila bono jarriko dira zirkulazinoan.

"Bono Denda" Igorreko Udalen 5 euroko diru-laguntzea daukan bonoa da. Hogeituro pagauta, 25 euroko bonoa erosi daiteke Igorreko hainbat dendetan gastetako. Bonoa La Caixan eskuratu ahal izango dabe igorretarrak zezeilaren 20tik aurrera, kanpaina amaitu arte. Beste herrietakoak, oster, martiaren 1etik martiaren 31ra arte. Bonoa erosteko Nortasun Agiria erakutsi behar da eta hamasei urteko gorakoa izan behar da. NAN



bakotxagaz 3 bono eskuratu daitezke eta erosketak baxoan, gehienez bono bi erabili ahal izango dira.

Saltoki txikerrentzat

Kanpaina hau sei beharginetik beherako plantillea daukien Igorreko saltokietarako da. Kanpainari atxikitzen jakozan establezimientuetan marka bereizgarri bat jarriko da ondo ikusteko moduko lekuren baten, erakuslehoan berbarako. Holan, konsumitzailak errez identifikauko dabez kanpaina parte hartzean daben dendak.

Kanpainearen helburua be bada, igorretarri beharrezkoak dituen produktuak merkeago eskuratzen lagundutea.

ARRATIA

Tradizinoa gaurkotuko dabe koruak Agate Deunaren bezperan

Erredakzioa

Aurten be tradizinoak agindutako moduan, Arratiako auzune eta herrietako kaleak, koruz beteko dira, makila eskuan santeari koplak kantetako. Arratiako Koruak, Arratian bakarrik ez, Arratiatik kanpo be kantauko dau Ane Legarreta galdakaoztarraren zuzendaritzapean. Korua sortu zanezik 66 urte bete dira baina barrizen doa. Aurten kantari barriak sartu dira eta 50 partaide inguruk osotuten dabe. Ibilbidea eta errepertorioa be luzeagoak ditu aurten.

Santearen omenezko lau koplak eta beste hiru kantu kantauko ditu koruak. Begoñako Basilika eta Bilboko Santiago katedralean: "Ama Maite", Madinaren "Aita gurea" eta "Slava Otsu" izeneko kantu ukrainarra, hain zuzen be.

Ibilbideari jagokonean, zuzendaria galdakaoztarra izanda, Galdakaon be kantauko dau aurten Arratiako Koruak. Horrek luzatu egingo dau alde aurretik luzea zan ibilbidea eta beranduago amaituko dau koruak bere emonaldia. Hamalau ordu egingo dabez 12 herritan koplak kantetan. Hata guzti be, ilusinoz be-

terik dagoz korukoak "bizi egin beharreko eguna da. Sano hunkigarria" dino Ana Sierrasesumaga korukoak. Batutako dirua, Caritasentzat izango da.

Ibilbidea

Partaideak 08:00etan autobusa izango dabe Igorren Areatzara joateko. Han, mezea entzun eta 08:45ean hasiko dabe ibilbidea. Hauxe da koruak egingo dauan ibilbidea: 09:00etan, Arantzazu; 09:15ean, Dima; 09:30ean, Igorre; 10:00etan, Lemoa; 10:15ean, Zornotza; 11:25ean Begoñako Basilika; 12:00etan, San Anton, Eribera, Merkadua, Plaza Barria, Laboral Kutxa, udaletxea, BBVA, El Corte Ingles eta BBK; 13:30ean Bizkaiko Foru Aldundia; 13:55ean, Guggenheim museoa; 14:30ean,



Arratiako Korua Areatzan.

IGORRE

Jaietako kartelak aurkezteko epea zabalik martiaren 3ra arte

Erredakzioa

Igorreko Jaietako Kartel Lehiaketarako kartelak aurkezteko epea zabalik dago. Partaideak Igorrekoak izan behar dira eta udaletxeko erregistroan aurkeztu beharko dabe proiektua martiaren 3ko ordu batak baino lehen. Kartelak Kul-

tur Etxeko hall-ean ipiniko dira eta, irabazlea aukeratzeko, herritarrek bozkatuko dabez kartelak martiaren 21era arte.

Partaideak kartel bi aurkeztuko ditue, bata testuagaz eta bestea mutua. Kartelerako testua "Igorreko jaiak 2017, bagilearen 9tik 18ra" da. Irabazleak, 400 eurotako

bonoa jasoko dau Igorreko jaiak antolatzen lagunduten daben komertzioetan erabilteko.

Jai Batzordea beharrean

Igorreko Jai Batzordea hasita dago jaiak antolatzen, lehenengo batzorra urtailaren 26an egin eben. Hurrengo batzarrak, zezeilaren 23an, martiaren 30ean, apirilaren 27an eta maiatzaren 25ean izango dira 19:00etan, Kultur Etxean. Kuartilaren batzarrak oster, zezeilaren 9an, martiaren 9an, apirilaren 6an eta maiatzaren 11n izango dira.

ARRATIA

Paisajeen Katalogoa egiteari ekin deutso Foru Aldundiak

Erredakzioa

Arratiako paisajea Igorreko Eskualde Egituran sartzean da. Zezeilaren 15ean, aurkeztuko dabe Igorre Eskualde Egiturako Paisaiaren Katalogoa Igorreko Kultur Etxean.

Bizkaiko Foru Aldundiak, "Arratiako Paisaiei Begire" lemapean,

Igorre Eskualde Egiturako Paisaiaren Katalogoa eta Zehaztapenak lantzeari ekin deutso. Katalogoa egiten dabilen Ekos Asesoriaren arabera, lurraldean bizi diran pertsonak paisajearen inguruan daukien perzeptzioa jasoko dau eta parte hartze publiko zabala izango dau.

Katalogoak paisaje desbardinak

identifikau, aztertu eta baloratu ditue ezaugarri eta konsebazino egoera kontuan hartuta. Paisaiaren Zehaztapenak dokumentuan, paisajearen kalidade helburuak lortzeako gomendioak emongo dira. Igorre Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatik Planean be jasoko dira gomendioak.

Arratiarren eretxia jasoteko, Paisaiaren Katalogoaren aurkeztapena egingo dabe zezeilaren 15ean, 18:00etan, Igorreko Kultur Etxean. Katalogoa uda amaierarako egongo da prest, eta Paisaiaren Zehaztapenak, 2018ko urtailerako.

ARRATIA

Arratiako AEK-k proposatutako moduan, Otxandion hasiko da 20. Korrika



Hogeigarren Korrika martiaren 30ean abiatuko da Otxandiotik. Arratiako AEK-k eskolak emoten ditu Otxandion eta bere proposamena izan zan 20. Korrika bertatik hasia. Izan be, 20. Korrikak Korrikaren sortzaileak omenduko ditu eta euretako bat, Joseba Campo otxandioztarra zan.

Erredakzinoa

Otxandioztarrak lan handia egin dabela hasikera eguna prestatzen dino Lurdes Ortega Arratiako Korrika arduradunak. Egun horretan, besteak beste, kaleanimazioa, txosnak eta kontzertuak egongo dira. Eta hasikerako ekitaldia. Ekitaldi horretan, AEK-k

20. Korrika aurkeztuko dau, mezua lekukoan sartuko dabe eta hasikerea emongo deusie hogeigarren edizinoari.

20. Korrika

Otxandion martiaren 30ean hasi eta apirilaren 9an Iruñean amaituko da 20. Korrika. Hamaika egunetan Euskal Herria zaharka-

tuko dau eskuz esku eroango daben lekukoak. Arratiatik apirilaren 7an izango da eta Bedia, Lemoa, Igorre, Arantzazu, Artea, Areatza, Zeanuri eta Ubidetik pasauko da.

Mezua "hizkuntza, kultura, mundu bat zuk" da. "Hizkuntza, kultura, mundu bat, zuk" eta "hizkuntza, kultura, mundu batzuk" mezuakaz olgetan eta bat eta zuk kontzeptuakaz berba-jokoa eginda.

Abestia, "Zirkorrika" izenekoa, Xabier Zabalak eta Uxue Alberdik sortutakoa da. 5 kantarik ipinten dabe abotsa eta Jaraute 69k eta Oreka Tx-ek musikea. Bideoklipa, Hiru Damaxo Ideia Faktoriak egin dau.

1980tik, urte birik behin, AEK-k Korrika antolatuten dau. Ekitaldi honeguz jasoten dan dirua Euskal Herri osoko AEK-ko euskaltegiak lagunduteko da.

ZEANURI

Tere Maldonadok feminismoaren gaurko panoramea azalduko dau Zeanurín

Erredakzinoa

Feminismoa gaur egun sano ugaria eta aberatsa da eta korronte eta joera askok osotuten dabe. Hori dala eta "Feminismoaren gaur egungo panorama teorikoan kokatzeko mapak" izenpeko ikastaroa emongo dau Tere Maldonadok zezeilaren 3 eta 4an Zeanuriko Kultur Etxean.

Ikastaroa, barikuan, 17:00etatik 20:00etara eta zapatuan 10:00etatik 13:00etara izango da.

Historia luzea dauka feminismoak eta hasikerako izen eta definizioak aldatuz joan dira, egun bizi dogun mapa konplejura heldu arte. Ikastaroan, hori ma-

paori ulertuteko nondik norakoak emongo dira. Eztabaidak lanketa personal baten ostekoak izan daitazan, izena emondako partaideak materiala eskeiniko jakie aurretiaz.

Ikastaroa, Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako programa barruan dago eta izena udaletxeetan edo Mankomunidadeko Bardintasun Zerbitzuan emon daiteke.



Jabekuntza Eskolako ikastaro bateko partaideak.

IGORRE

Euskerearen kale erabilereak gora egiten jarraituten dau Igorren



Igorreko Euskera Planak antolatzen dauan Inbiu Eguneko irudia.

Soziolinguistikako Klusterrak 2016an egindako

euskerearen kale erabilerearen neurketeak sano emoitza onak emon dauz Igorren. 2011tik sei puntu t'erdia igon da, %46,8tik %53,3ra pasatuz eta lehenengo kale neurketea 2001ean egin zanetik 20 puntu egin ditu gora: orduan kalean euskeraz egiten ebenak ez ziran heren batera heltzean (%32,9) eta orain erdiak baino gehiago dira. Datuok jentaurrean aurkeztuko ditue martiaren 16an.

Erredakzinoa

Irati Barrenetxea Igorreko Euskera Teknikariak argi dauka zein dan hobekuntza honen errazoa. "Euskera Planak 15 urte daroaz euskerearen normalkuntza eta erabilerea sustatuteko ekintzetan beharrea eta emoitza hortik datoz. Hilero-hilero batzean dira herritarrek, alkarteetako ordezkariak, Euskera Teknikaria eta zinegotzia eta Plan Estrategikoari lotutako urteko ekintza plana aurrera eroteke alkarlana egiten dabe.

Adin talde ia guztietan gora

Gehiago edo gutxiago euskerearen erabilereak gora egin dau adin tarde ia guztietan. Umeen erabilerea %68,8koa da. 2011tik sei puntu egin dau gora.

Euskera Teknikariaren ustez, Gazteak dira eragin beharreko talde estrategiko garrantzitsuenak. Izan be, adin honetan, erdira jeisten da euskerearen erabilerea (%39,2). 2011tik igon egin da erabilerea, baina batzuetan bestekoa baino gutxiago, 3,8 puntu. Kale neurketa guztietan gertatu dala hori dino Barrenetxeak, umetatik gaztetara kolektiboaren erabilerea

erdira jeitsi dala. Horregaitik talde horretan zelana eragin landuko dabe Euskera Planekoak.

Bere hizkuntza ohiturak gehien aldatu dituan taldea helduena izan da. Izan be, ia hamar puntu egin ditu gora, %38,6tik %47,2ra pasatuz. Edadekoen erabilereak, barriz, kontrako joera izan dau, hiru puntu t'erdia behera eginez, %41,6tik %38ra pasau da.

Euskerearen arnagunea

Igorre Ueman (Udalerrri Euskaldunen Mankomunidadea) sartzea gura dabe Euskera Planekoak. Baldintzak beteten ditu Igorrek. Izan be, euskerearen arnagunea izateko, euskerearen indizea %70etik gora egon behar da. Indizea euskerearen ezagutza mailatik ateraten da, euskaldunak gehi ia euskaldunak zati bi. 2011ko Igorreko indizea 75,25 zan.

2016ko kale neurketeak beste datu pozgarri bat emon dau. Izan be, inguru erdaldunetan euskerearen kale erabilereak goranzko joera dauka eta inguru euskaldunetan beheranzkoa. Igorren ez da hau beteten eta euskerearen kale erabilereak gora egin dau.

MIKEL ZULUAGA

Erredakzioa

**Desobedientzia zibila defen-
diduten dozu eta ibilbide bat
daukazu horretan.**

Desobedientzia zibila giza mobi-
mentu eta mobimentu politikoen
erreminta bat da. Bake erreminta.
Jentea sensibilizatu eta hausnartu
arazoteko helburua dauka. Kasu
honetan jentea konturatu daitela
errefujiadukaz gertatzen dagoan
kruelkeria, eta lege bat desobe-
ditzean beste bat beteten dala.
Gobernuak desobeditu behar dira,
Giza Eskubideak beteteko.

Ekintzaren ostean errefujiaduak
ekarri doguzala publiko esateko
asmoa geukan. Zigor bat egongo
dana badakigu, baina zigor hori
be publiko egingo dogu. Zigorrak
erakusten daukako zigorra ipinten
dabenak zelangoak diran. Eta ho-
rrek gaiaren inguruko konzientzia
soziala sortuten lagunduten dau.

Orain dala urte batzuk be atxi-
lotu ginduezan, Joxemi Zumalabe
Fundazioan, desobedientzia zi-
bilaren marko teorikoa prestatzen
gengozanean. Oraindino praktika-
ra pasau barik. Piontzia bat pres-
tatu genduan, kasualidadez or-
duan be Begoña Huartek eta biok,
"Piztu Euskal Herria" izenekoa.
Atxilotu ginduezan ETAK idatzitako
piontzia bat zala esanez, baina
desobedientzia zibila, mundu guz-
tiak dakian moduan, biolentziagaz
bateraezina da. Absurdoa izan zan.

Gandhik erabili eban burruka
antikolonialistan, Martin Luther
King-ek erraza segregazionis-
moaren kontrakotan, andrak su-
fragismoan. Adibide eta modu
asko dagoz. Esklabuak askatzeko
ezkutuko trena, barbarako. Ez zan
tren bat izan, trenak, barkuak eta
edozein garraio igesean joaiazan
esklabuak ezkutuan eroateko
sare bat baino. Bigarren Mundu

"OEEK jakin izan dau porrota garaipen bihurtzen"

Mikel Zuluaga zeanuriztarra desobedientzia zibilaren aktibistea da. Desobedientzia zibila, muga eta hesien kontrako burrukan egiteko erremintatzat dauka Zuluagak. Begoña Huartegaz batera Euskal Herrira legez kanpo 8 errefujiadu ekarten saiatzeagaitik atxilotu eban Greziako poliziak 2016ko abenduan, baina ez da lehenengo aldia praktikan jarten dauala desobedientzia zibila. Izan be, Gazako blokeoa desobeditzeko ekintzetan hartu dau parte zeanuriztarrek.

Ongi Etorri Errefuxiatuak giza mobimentuetako eredu bihurtu dala dino. Bertan, oso ideologia desbardinatuko jentek alkarregaz egiten dau behar oso modu bateratuan. Euren ekintza ondo transmitiduten jakin dauala dino, txarto urtendako ekintza bat, garaipen bihurtuz.



Mikel Zuluaga.

Gerrako mugalariak beste adibi-
de bat dira. Frankismoan be
mugalariak egon ziran Portugalgo
Salazarren diktaduratik portugal-
darrai iges egiten lagunduten.
Beste adibide batzuk, Rosa Parks
edo Pepe Beunza, lehenengo in-
sumisioa dira.

Eta orain be erabilten da. Ga-
zako blokeoa apurtuteko saiatu
gara desobedientzia zibila erabi-
lten. Sei bider saiatu gara baina ez
dogu lortu oraindino.

Guk uste dogu desobedientzia
zibila leku eta momentu historiko
bakotxera egokitu behar dala
eraginkorra izan daiten. Zentzu
zabalean hartzean dogu eta uste
dogu ohituretarra be zabaldu be-
har dala. Horrek esan gura dau

gure egunerokotasunean ohitura
batzuk desobeditu behar dogu-
zala, jokaera positiboak izateko.
Esate baterako, konsumo ardu-
ratsua, argindar larregi ez erabili,
eta abar. Etsaia ez dago kanpoan
bakarrik.

**"Basakeria honen aurrean de-
rrigorrezkoa da desobeditzea"**
dinozu. Errefujiadu eremuan
imajinak ikusi doguz baina
deskribidu basakeria hori,
errefujiaduen egoera lazga-
rria.

Inor ez da jaio gura izan dauan le-
kuan. Baina konzientzia oneko per-
sonak argi euki behar dogu, danok
euki behar doguzala eskubide eta
bizi baldintza bardinak. Eta marra
batek, muga deitzean dan mar-
ra soil batek milaka personaren
heriotzea eragiten dau. Marrak,
itsasarte batek, hesiak, harresiak,
alanbre-hesiak eta alanbre-hesia
konzertinatuna bada, mutilau egi-
ten dau jentea. Ikaragarria da.

Etxe gainean bonba bat jausi
ezkero, auzokoaren etxera joaten
da jentea. Auzokoaren etxean be
bonba bat jausten danean, urira
eta uria bonbardatuten dabenean,
handik alde egiten dau. Hori mun-
du guztiak ulertuten dau. Edo bor-
taketea onartzen dauan kultura
baten bizi dan andra bat, normala
da lekuz aldatzea. Edonork egingo
leuke gauza bera.

Mugak zarratu eta horren ku-
deaketa txarra egiten dabe. Jentea
hartzean baino gehiago gastetan
dabe "segurtasunean". Horregaitik
dinogu Arratiak eta Euskal Herri
osoak harrera herria izan behar
dauala. Normaltasun osoz. Euren
lekuetan muturreko egoerak bizi
dabez eta iges egin ezkero errefu-
jiadu eremuetan sartzean doguz.
Basakeria da eta basakeria hori
gelditu egin behar da. Errefujiadu
guneetan ez deutsee ezer egiten

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinikoa
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa
Bidebarri 1, behea
48140 Igorre - Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zentzuak 100
R.P.S. 31/06

Kili~Kili
Ampo eta Puerkulturak
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 43 81

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeopk@a@hotmail.es

**ASESORIA
Gorbeialde**
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askitasun 28, 1B · 48143 Areatza
Tfnos. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

belagorri
mediku naturalista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elikagai biologikoak
zeliakozentzat elikagaiak
estetiziena
Zamakoa, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

**arratiako
instalazioak s.l.**
Berokuntza - Iturgintza - Gas
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

**Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu**
Fisioterapia
Zentroa
Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari
Klinikea
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1, Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

begitu
analisia ubide zaberritu

ZEKUTZE
JATE TXEKA
Sabino Arana, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, nº 3, 48330 LEJONIA, Bizkaia
Tel: 000 481 839 666 / 000 260 717

Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Bizkaifisios.com
www.bizkaifisios.com

ixten, ez behar egiten, ezta eskolak antolatuten be. Alperkeriaz, hotzez eta gosez noz hilgo zain dagoz. Ezin da onartu.

Ongi Etorri Errefuxiatuak plataforman jente ugaria batzean da, sano ideologia desbardinetakoa, eleiza eta mobimentu feministea, barbarako; EAJ-PNVkoa eta Podemosekoa... Danok egin dozue bat desobedientzia zibilaren preminea dala-eta? Plataformaren babes osoa euki dozue.

Ekintza hau ez dau Plataformak egin, ezin gendualako zabaldu. Baina Bizkaiko OEE osotuten daben tailer guztietan, desobedientzia zibila preminazkoa zala esan eben. Eta gero ikaragarri ondo erantzun dabe. Jakin izan dabe porrota garaipen bihurtzen, txarto urtendako ekintza bateri bueltea emoten eta desobedientzia zibila ondo transmitiduten. Baita giza zoru bat sortzean.

Giza zorua funtsezkoa da. Herri guztietan lotan dagoan errazismoa dago eta giza zorua egon ezkerro eta eremu diskursibo, geografiko eta komunikatiboa ondo hartuta badagoz, errazismoa esnatzea gatxagoa da. Aktibistak bakarrik ez, kaleak be defendidu behar dau justizia. Guk egindako ekintza dala-eta, hau basakeria bat dala, errefujiaduak ezin dirala holan bizi eta desobedientzia zibila horretarako erreminta bat dalako ideak zabaldu ditu OEEk. Danok bat egin dogu.

Ondo komuniketan jakin dau, eta jentearen sinpatia lortu dau. Europako leku askotatik dabilz deika, OEEen zelan egiten dogun behar jakiteko eta desobedientzia zibilaren gainean galdetuten.

OEE Plataformea eredu bihurtu da orduan. Zein herrialde-

tatik deitzean deusue OEEren funtzionamentuaren barri jakiteko?

Italiatik, Greziatik be bai... Giza mobimentuak deitzean deuskue hainbat topaketatako. Zenbatu be ez dodaz egin.

OEE tribu askok osotuten dabe eta gizarte osoa zeharkatzen dau. Maitasunen katea eta alkarrenganako konfiantzea landuten dira bertan. Desbardinak garala jakinda, konfiantzea daukagu alkarrengan. Danon etsaiaren kontra eta errefujiaduen aldeko burrukan gogozalako. Hori da gure oinarria.

Idea guztienganako errespetua eta danontzako lekua dago. Giza mobimentuak askotan oso ideologizauta dagoz eta mugatu egiten dira. Giza mobimentuetarako espazio barri bat zabaltzen gabiz. Jentea harritu egiten da eleizea eta anarkistak alkarregaz beharrean dagozalako eta European hau ikertuten dabilz. Eskemak apurtuten dauz OEEk. Sano interesantea da.

Europako egoera politikoa dala eta (Merkel-eri presinoa, Europako Legebiltzarreko presidentetza alderdi konserbadorearen eskuetan...) ez dirudi egon daitekezan aldaketak errefujiaduen alde izango diranik. Espainian geldí eta isilik dagoz, Eusko Jaurlaritzan... zelan ikusten dozu panoramea? Jentarte zibilaren esku baino ez da egongo basakeria honegaz amaitutea?

Mundu mailako politikan hiru mundu eta hiru jarkera dagoz. Herrialde garatuetan neofazismoa deitu geinkean ideologia indartzen doa. Europako ultraeskuinaren gorakadea eta Trump-ek isladatzen dabe hori. Euren ustez munduan jente klase bi dagoz:



beharrezkoak eta beharrezkoak ez diranak. Munduan gehiegizko populazioa dagoanez, gertatzen dana ez jakie inporta eta armak saltzean deusez gobernu eta oposizioai. Gerrak ez jakiez ardurara. Beharrezkoak diranen mundua zarratu egiten dabe, harresiak ipiniz, segurtasunaren izenean. Hor

Guk uste dogu desobedientzia zibila leku eta momentu historiko bakotxera egokitu behar dala eraginkorra izan daiten

gitxi batzuk sartu daitezke, lan esku merkea behar danean, eta behar ez diranean kanporatu egiten ditue. Bide horretatik gurean, latinoamerikako andra asko dagoz zaintza lanak egiten, hemengook kubriduten ez dogun beharra egiten.

Bigarrena, liberal eta askotan sozialdemokraten mundu eta jarkerea da. Sano teoria solidarioa daukie, baina praktika hutsa. Beti dagoz pelotea beste baten teilaturat botaten.

Baina erakundeetan, jente arduratsua be badago; benetan saiatzen dana urtenbideak topatzen eta errefujiaduak urtenbideak emoten. Batez be, maila lokalean, udaletxeetan eta.

Eta zelan ikusten dozu jentearen inplikazioa maila? Mobilizazioak karidadean geratzeko arriskua dagoala uste dozu ala konpromisoa harago doa?

Pentsetan dot asistentzialismoak zergaitiak ikusi behar dituala, ezpabere hutsean geratuko da. Zergaitiak salatu ezean, gobernuak ezarritako egoera hau mantenduten lagunduko dogu. Gobernuak gizarte zibilak bere gain hartzea errefujiaduen superbibentzia gura dabe. Gauza biak dira beharrezkoak, errefujiaduak bizirik urten behar dira horretatik, baina zergaitiak be salatu egin behar dira.

Errefujiadu eremuetan poliziak eta militarrek kontroletan dabe dana. Errefujiaduak, heltzean jakien erropea be ezin dabe aukeratu. Politika horreek ezarri dituen agintariak ez dabe gura umeak ingelesa edo grekera edo gaztelania ikastea. Denpora guztian ezer egin barik egotea gura dabe, atzera egin edo etsi egin dagien. Familia asko aurrera egin ezinda geratu dira. Asmoa zein dan argi

ikusten da kanpalekuetan: lehenengo kanpin dendak ziran, orain kontainerrak ipini ditue, horreek kaleetan ipinten hasi dira... urteak eta urteak egon daitezkan hor.

Europako jente solidarioa errefujiaduak ekarten hasi da. Errefujiaduak liberetako ezkutuko tren bat behar izango da?

European jente asko dago errefujiaduak eremuetatik ateraten, ateraten dabizala esan barik: familiartekoak eta abar. Gure moduan prozesauta dagoan jente asko dago. Gure berezitasuna izan da guk publiko esan dogula legetik kanpo jarduten dogula. Baina Grezian errefujiaduen aldeko mobimentu handia dago. Euri Europako hesia izatea tokau jakie, poderea hesiak Europatik kanpo ipinten saiatu dan arren.

Itunen bidez Europatik kanpo hesiak jarri ezkerro, Europako herritarrak horren konsziente ez izatea be lortzean da.

Bai. Horregaitik Grezian dago hainbeste jente errefujiaduen alde beharrean. Adibide bat da City Plaza Hotela. Errefujiaduentzako egokitu dabe. Lehen turistak egiten eben lo bertan eta orain errefujiaduak bizi dira han. Eskolak be badagoz. Desobedientzia desbardina da, baina azken finean, desobedientzia praktika bat da. Alemanian eta herrialde nordikoeetan jentea hartzeko kulturea dago. Gurean oraintsu hasi gara ikasten baina uste dot OEE sano ondo dabilala.

Gizakiaren historiaren zati handi bat gerra, jazarpen eta indarkeriaren bitartez egin da. Baina kontrakoa be beti izan da eta historia jente eta herrien alkartasun, maitasun eta gozotasunari esker eregi da. Hori holan izan ez balitz, honezkero ez zan gizakirik bizirik egongo.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA

MENDIA

Carlos Rubio Alex Txikonen espedizinoko kideak itxi egin dau Everestera saiakerea

Everesterako bidea ekipetan.

Erredakzioa


Urtailaren 21ean, helikoptero batez atera behar izan eben Carlos Rubio 2. Kanpalekutik gaisorik egoalako. Bere bizitza ez dago arriskuan baina ezin izango dau jarraitu espedizinoan. Alex Txikonek jarraituten dau sei eskalataile nepaliarren laguntzeagaz. Norbu, zazpi bider igo dauana Everest, eta hiru biderrez ton-torra egin dauan Nuri nepaliar eskalataileak be ahaleginduko dira Txikonegaz gailurreraino

heltzean. BEGITU zarratuterakoan, 7.800 metro ingururarte eukien ekipauta bidea.

Egun latzak pasau dabezala dino Alex Txikonek bere blogean. Behe Kanpalekutik kanpo pasau ebezan, Khumbu urjauzia ekipetan Izotz doktore bi eta sei eskalataile Alex Txikon eta Carlos Rubiogaz batera. Bigarren kanpalekuan egozala (6.400 m.), lan handia, pisu asko eta baldintza gogorakaz, Rubio gaisorik jarri zan eta helikopteroak, "sano manibra arriskutsuan" Behe Kanpa-

lekura eroan eban.

Hurrengo egunean taldea Hirugarren Kanpalekura urten zan, Kanpaleku hau 7.300 edo 7.400 metro tara montetako. Lau eskalataile izan ziran, Norbu, Nuri Chhupal eta Txikon eta -30°C eta -35°C artean emon eben gaua. Chhupalek, ez egoala ondo, eta behera egitea ebatzi eban. Hemendik aurrera, Norbuk, Nurik eta Txikonek ekipau eben bidea, gitxi gorabehera 7.800 metro tara heldu arte. Ondoren Bigarren Kanpalekura eta handik Behe Kanpalekura bajatu zan taldea, egun batzuetan atsedena hartzeako.



PELOTEA

Arratia-Nerbioi Eskolarteko Pelota Txapelketako finalak zatika jokatuko dira**Erredakzioa**

Aldaketak egon dira eskolarteko pelota txapelketetan. Aurten ez dira kategoriaz guztietako finalak egun berean eta frontoi berean jokatuko. Izan be, eskualdeka jokatuko beharrean, Infantiletik gorako kategoriaz Bizkaia mailan jokatuko dabe. Bizkaiko Federakundeak antolatutako ligan, urtaileko 28-29

astegienean amaitu zan eta orain kanporaketak hasiko dira.

Txikerrenak eta hasibariak eskualdeka jokatuko dabe Arratia-Nerbioi Txapelketea eta eskualdeko pelota eskolak jaialdia antolatuko dabe finalak jokatuten diran egunerako.

Finalaurdenetakoak jokatuten dabiz orain eta finalak noz eta non izango diran zehaztu barik dago.

MENDIA

Ganzabalen Mendirik Mendi argazki erakusketea IKEn**Erredakzioa**

Zezeilaren 1etik 28ra arte, Ganzabal Mendi Taldeko bazkideak mendirak erakusketea egindako argazkien erakusketea egongo da Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoan. Bertan, 2016an Gorbeian, Anien, Dolomitetan edo Pirinio Katalanetan ateratako argazkiak ikusi daitezke.

Hogetabat egileren 42 argazki batzean ditu erakusketeak, Ganzabaleko 2016ko Argazki Lehiaketan

parte hartu ebenak. Argazki horreetako 12 onenakaz, egutegia egin dau taldeak. Hamabi irabazle horreen lanak be ikusgai egongo dira.



Matrikula garaia

zezeilaren 10era arte
Emon izena Arratiako ikastetxeetan.

Onakiaun harri ikastetxeak
Gure
ikastetxeak
Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



KROSA

Iraia Garciak Bizkaiko Kros txapela jantzi dau seigarrenez

Erredakzioa

Iraia Garciak seigarren Bizkaiko txapela lortu eban Abadiñon urtailaren 15ean eta Europako Kros Txapelketan izango da zezeilaren 5ean, Albufeiran (Portugal), kontinenteko krosleri onenakaz lehian. Bizkaiko Txapelketan, Onditz Iturbe igorretarrak 12. egin eban. Biak, Garcia eta Iturbe, BM Santutxu taldekoak dira.

Bizkaiko Txapelketaren aurreko astean euri asko egin eban eta zirkuitua lupetzaz beteta egoan. Egoera horrek lagundu eutsan Garcia, indar handiko lasterketaria da-

eta, baina lana aldatubari eukan eta ordutegi eta erritmo aldaketea



Iraia Garcia 2705 dorsalagaz.

Argazkia: Santutxu BM Kluba.

igarri ebala dino. Hata guzti be, egindako entrenamentu onen eragina handiagoa izan zan. Podiumean Iraia Garciagaz, Virginia Perez mendi lasterketaria eta Natalia Gomez triatletoa egon ziran.

Iraia Garcia ibilbide luzedun eta maila internazionalako krosleriak, behar egiteaz gainera, Igorre eta Lemoako Gu be bai Runners taldeetako irakaslea da eta Arratiako

andrazkoai kros zaletasuna sar-tzeako eskolak emoten deusez.

2017ko erronkak

Zezeilaren 5ean Europako Kros Txapelketan hartuko dau parte eta atletarik onenak eta profesionalakaz neurtuko da Iraia Garcia. Irabaztea gatxa izan arren, "dana emongo" dauala dino.

Estaduko Kros Txapelketan be parte hartu eta ahalik eta ondoen geratuteko asmoa dauka. "Saila izaten da ze profesionalakaz leihatzen gara, eta azkenean desbardintasuna igartzen da honetaz bizi diranen eta lana daukagunon artean".

Pista denporaldian 3.000 metroko oztopo-lasterketaren bat egin gura dau, gorputza ohitzen joateko "ze 2018an Beterano Mailako mundiala jokatu da Malagan, eta proba horretan be parte hartu gura dot" azaldu deutso Bizkaiko txapeldunak BEGITURI.

FUTBOLA

Bide onetik arratiarrak

Erredakzioa

Arratia futbol taldeko andrazkoak bardinketa garrantzitsua lortu eban laugarren doan Mulieren kontra urtailaren 29an jokatuako partiduan bana bardinduta. Hamabigarren da Arratia eta hurrengo partidua zezeilaren 11-12ko aste-goienean Athletic B talde liderraren kontra jokatu dabe Urbietan.

Arratiako gizonetzkoak ostera hirugarren jarraitzen dabe sailkapenean atzen partidua 3 eta 1 San Ignaciori irabazi eta gero etxean. Hurrengo partidua Otxarkoaga taldearen kontra jokatu dabe Igorren.

B taldea ostera, atzenengo partidu bietan 4 puntu atera eta gero, zazpigarren da sailkapenean.

begitu

arratia ubide zeberio

ez da debalde



**"Albait gehienok apur bat emon daigun gitxi batzuk dana emon ez dagien".
Izan zeu be Begitu-laguna!**

EUSKERA

Hamar puntu igo zan 2016an euskerearen udaletxe barruko erabilera Lemoan

2015ean, Soziolinguistika Klusterraren Aldahitz proiektuan sartzea ebatzi eban Lemoako Udalak, udaletxeko beharginen arteko euskera erabilera maila igoteko.

Erredakzioa

Klusterrak 2016ko abenduan emondako datuen arabera, esperientzia honen hasieran parte hartu daben udaletxeko beharginak aitortutako euskerearen erabilera %59,3koa zan, eta proiektua amaitu eta hiru hilabetera %69,2.

Lemoako Udalaren asmoa udaletxean euskerearen erabilera handitzea da, herrian eredu izan daitezen. Izan be, Gorka Barrenexea Euskera Teknikariak, BEGITURI adierazo deusnan moduan, 2001-2011 tartean herria "nahikotxo" erdaldundu zan. 2015ean agertu zan, Soziolinguistika Klusterrean Aldahitz proiektuan sartzeak aukerea. Proiektu hau Eusle metodologian oinarrituta dago. Eموitza onak ikusita, orain metodologia horretan oinarritutako beste dinamika bat dagoz aztertzen udaletxean jarteko.

Metodologia

Aldahitz proiektuan parte hartzea borondatezkoa da. Beharginen %75a prest egon behar da proiektuan parte hartzeako. %75ek baietza emonda, talde ebatzia da. "Metodologia honek sano emoitza onak ateraten ditu, partaideak euren kabuz egiten dabelako. Euskera Teknikariak jarraipena egiten dau baina kanpo dago" dino Barrenetxeak.

Behin baietza emonda "euslea" aukeratuten da. Lemoako kasuan hiru eusle egon dira. Eta euren eginkizuna da euskereari

eustea, parte hartzean dauan taldeagaz beti euskeraz egitea.

Hilabete biko tartean hiru eusle dagoz lehenengotik eta gero beste hiru. Taldeak ebazten dau nortzuk izango diran, bozketaren bitartez. Eta taldeak hartzean dau konpromisoa, eusle horrek eurekaz euskeraz egin dagian. Talde konpromisoa da. Eusleak eutsi behar deutso euskereari, baina beste guztiak laguntu behar deutse eusten.

Aste amaieran, puntuazinoa ipinten jako eusleari, ea astebe-tez eutsi deusnan euskereari eta gero taldeak bozkatzen dau ea proiektuagaz jarraitu gura dauan ala ez. Beraz, astero berresten da konpromisoa.

Hau hilabete biz egin eta amaitu eta hiru hilabetera neurtuten da barrero euskera erabilera. Metodologia hau erabili izan daben talde guztietan euskera erabilera hazi egin da.

Edozein talde eta edozein hizkuntzatarako

Metodologia hau aproposa da 10 lagunetik gora batzean dituan edozein talde tarako. Enpresetan be erabili izan da, Batz kooperatiban, barbarako, eta beste hizkuntza gitxituetan apliketako interesa erakutsi dabe.

Hori dala eta, urtailaren 18an, Lemoako udaletxean Arwel Tomos Williams Galeseko ikerlariaren bisitea izan eben. Bisitearen helburua Eusle metodologian oinarritutako Aldahitz esperientziaren barri izatea zan, Galeseko Bangor-eko unibersidadean martxan ipinteko.



Lemoako udaletxeko beharginak.

EUSKERA

Abizarie, Euskera talde izatetik alkarte izatera



Sisetan memdi martxarako Abizariekoak egindako kartela.

Erredakzioa

Herrian euskerearen erabilera beherentza doala ikusita eta horrerri aurre egiteko sortu zan orain dala urtebete Abizarie taldea Diman. Orain alkarte izatera pasauko dira eta zezeilaren 8an, alkartearen es-

tatutuak onartutako bilera egingo dabe. Euskerearen alde egin gura daben herritar guztiak zabalik dago alkarte, kide barriak hartuteko prest.

Abizarie taldeak Dimako hizkuntza paisajearen eragiteko behar egin dau, saltoki, denda eta abarretan kartelak euskeraz ipinteko kanpai-

na baten bitartez; helduen artean euskereagazko sensibilizazinoa bultzatzeko "Barikuetan be" izeneko ekimena ipini dabe martxan; Ibon Izagaz lankidetzan *Elemakarrak* filma egin dabe; Sisetan mendi martxan hainbat lekuren izenak ezetu arazoteko kartelak ipini eta herriko umeentzako eskola materiala sortu dabe Dimako kultura-ondarearen barri izan dagien. Alkarteak, euskereak Diman indartsu jarraitu dagian beharrea segiduko dau dala dino Iñigo Errasti Abizarie taldekoak.

Norabidea alkarteak ebartziko

Topaguneakoak eginiko saio bartzuen ondorioz sortu zala Abizarie adierazo deutso BEGITURI Errastik. Orain arte egindakoaren balorazinoa egiteko, urtailaren 18an, batu ziran taldekideak Topaguneakoak, eta aurrera begira egingo dabena gainean jardun eben. "Euren aholkuak eta gure arteko eztabaideagaz, hemetik aurrera nondik jo leiteken aztertu genduan, baina, orain, alkarteak berak zehaztu beharko dau bide hori" dino Errastik.

SAN BALENDIN

San Balendin zaharbarrituaren aurrean neurtuko dabe artea Eleizondon

Zezeilaren 12an, San Balendin egunaren aurreko domekan, ospatuko da jai.

Jon Urutxurtu

Aurten be San Balendin jai ospatuko da Zeanuriko Eleizondo auzoan, Piedadea izenez ezetuten dan ermitearen inguruan. San Balendin egunaren aurreko domekan, zezeilaren 12an, ospatuko dabe jai. Gainera, Eleizondora hurreraten diranak San Balendinen irudi zaharbarritua ikusteko aukerea izango dabe.

Udan eroan eben eleizondotarrak San Balendinen irudia Bilboko Eleiz Museora eta urtailaren 24an ekarri eben bere ermitara guztiz barrituta. Juan Manuel Cembellin, Museoko zuzendariak eta Aitor Bilbao, zaharbarritze lanen arduradunaren arabera, "irudia egurrezkoa da eta XVIII. gizaaldiaren amaierakoa izan daiteke; horregaitik, zaharbarritze beharrak mende horretako irudien eredu jarraituz egin dira; batez be lan sakona egin behar izan da irudiaren aurpegian eta eskuetan. Irudi osoa polikromau behar izan dogu".

Urtero legez, egitaraua apala, baina, aldi berean, bitxia antolatu dabe eleizondotarrak: 11:30ean mezea izango da Andra Mari parokian; meza ostean, San Balendinen irudia parokiatik 50 bat metrora dagoan ermitara eroango dabe prozesinoan, datorren urtera arte bertan ixteko, eta jarraian ermitearen aurreko ar-

tearen neurketeari ekingo deutse. Neurketearen akta sinatu eta gero, aurtengo maiordomoak, datorren urtekoari agiri-liburua eta ermitearen giltza pasauko deusaz. Ostean, barauskarria —urdaia, pamtixa eta ardaia— bananduko da bertara hurreraten diranen artean. Ekintza horreek herriko tixtularien eta bertso-larien kantuen artean burutuko dira.

Egitarau honetan aitagarria da orain dala berrogeta bederati urte eleizondotarrak hasi eben eta orain dala bederati urte berreskuratu eta ofizialtasuna emon gura izan eutsien ekintza: Piedadeko artearen neurketea.

Artearen neurketea

Pedro Lejarza eleizondotarraren arabera, "Piedadearen aurrean dagoan artea, lehenago leku berean egoan beste baten ordezkua da; 1958 urtean landatu eben gure aurrekoak. Hurrengo urteetan, San Balendin egunean edota San Balendin eguna ospatzen zan domekan, gonbit egunean, batzuetan bazkalostean, eta beste batzuetan afalostean, jai giroan, bolanderak botaz, bertsoak abestuz... artea neurtu egiten eben. Neurtzeaz Gorordo baserriko Zeferino Lejarreta arduratzen zan. Tradizino hau apurka-apurka galdu egin zan eta azken neurketeari, Kandido

Intxaurragak egin eban 1999an; pampelxo baten zera idatzi eban: Piedadeko artea. 99-2-14. a 1,50 circunf.: 1,50".

Aurrekoak hasitako ohitua ez dabe galtzean itxi gura eleizondotarrak, eta Pedro Lejarzak dinoanez, "2007an neurtzen hasi ginan barriro, eta 2008an neurtzeaz gainera, agiri-liburua zabaldu genduan, bertan neurtzaileak, maiordomoak eta idazkariak sinatutako. Azken urteetan zugatzari neurri hartzeaz Zeferino Lejarretaren semea, Gregorio Lejarreta aurduratzen zan, 2015ean hil zan arte. Igaz Gregorioren lekukoa Igor Intxaurragak hartu eban eta bera izango da aurrerantzean neurtzailea".

Igaz hartutako neurria honako hau izan zan: 188 cm.ko perimetroa 150 cm.ko altueran, 2015ean baino 3 cm. gehiago. Zein neurri emongo dau aurten?



Neurketearen igazko argazkia.

FILMA

Elemakarrak filma Laburbira film laburren zirkuituan izango da

Erredakzioa

Dimako Abizarie euskera alkar-teak bideo bat ekoitzi gura izan eban, Diman euskerearen erabilerearen inguruko arazoa ikusi arazoteko. Premina horri erantzun guran, Ibon Izak, Urtzi Uriartek, Joseba Rodriguezek eta Imanol Garcia, *Elemakarrak* film laburra egin eben. Filma, Euskaltzaleen Topaguneak antolatuten dauan, Laburbira, euskerazko film laburren zirkuituan sartu da. Igaz 27 herrik osatu eben zirkuitua.

Zortzi film egongo dira ikusgai Laburbiraren hamalagarren edizioan: *Ihesa* (Alejandro Diaz, 2016), *Hileta* (Kepa Sojo, 2016), Euspot Lehiaketako spot onenak, *280°* (Uda films, 2016), *Jalgi* (Eki Pagoaga, 2015) eta *Elemakarrak* (Ibon Iza, 2016).

Elemakarrak filmak, herrian erdaldun elebakarraren eraginetik urrun, euskereari eutsi gura deustan umearen istorioa kontetan dau.

Fitxa teknikoa

Gidoia: Ibon Iza eta Urtzi Uriarte.

Produktzioa: Joseba Rodriguez.

Argazki zuzendaritza: Imanol Garcia eta Joseba Rodriguez.

Kamarea: Imanol Garcia.

Kamara laguntzailea: Joseba Rodriguez.

Makillajea: Amaia Haranburu eta Maite Arrizabalaga.

Aktoreak: Atxio Burgoa, Iñigo Errasti, Iradi Iza, Amaia Haranburu, Izaskun Atutxa, Elizabete Lejardi, Maitane Iza, Sendoa Miranda, Zefe Ziarrusta, Rafa Ugaldede, Alaitz Bizkarguenaga, Aroa Atutxa, Maddi Etxenausia, Enara Gallastegi eta Jare Iza.



AISIA

Zaztaparrak Asti Taldeak udalekuen inguruko asanbladea deitu dau

Erredakzioa

Aurtengo udan be udaleku itxiak antolatuko dauz Zaztaparrak Asti Taldeak, 22. urtez. Azken urteetan, izena emondako ume eta gazte guztiak ezin izan dira udalekuetara joan leku faltaz. Horri aurre egiteko, udalekuen inguruan aldaketak proposatu dabez ahalik eta jente gehienak udalekuetara joan ahal izateko eta metodologia parte hartzaileagoak erabilteko.

Hau danau plazaratuteko asmoz, Zaztaparrak taldeak Igorreko Lasarte Aretoan asanblada irekia antolatu dau zezeilaren 8an, 19:30ean, proposamena azaldu eta jentearen eretxiak jasoteko. Taldeak asanbladan parte hartzeako konbitea egin gura deutse era-

biltzailei, gurasoi, eta batez be, udalekuetan parte hartzeako gogo daukien 12 urtetik gorako gaztetxoai.



PAILAZOAK

Txirri, Mirri eta Txiribiton junior pailazoak Igorren

Erredakzioa

Txirri, Mirri eta Txiribiton junior pailazoak, *Patxistein Doktoea* ikuskizuna ekarriko dabe Igorreko Lasarte Aretoan zezeilaren 4an, arrastiko 17:00etan. Ikuskizun hau, pailazoak orain dala 25 urte estreinautako obran oinarrituta dago, moldaketa barriak eginda.

Txirri, Mirri eta Txiribitonek *Patxistein Doktoea* izeneko personajegaz egingo dabe topo eta "zientzilari zoro honen maltzurkeriak" saihesten, hamaika abentura biziko dabez. Abesti ezagunak be kantauko ditue.



DUNBA

Gazteon euskereari buruz

Izar Perez de Mendiola, Arratia Instititutuko ikaslea *

Gazteok, janzteko eta orrazteko erak, musika zaletasunak eta abar aldatzen doguzan moduan, euskerea be aldatuz eta moldatuz goaz, batik bat egoera informaletan eta teknologia barriai esker. Sarritan, erabilten dogun euskerea ez dala jatorra, egokia eta garbia entzuten dogu, horregaitik irakasle edo adituren bat etorri dakikegu zuzenketak egitera eta, nire ustez, horrek ez dau euskerearen erabilera bultzatzen.

Badakit, askotan, hizkuntzak nahastu egiten doguzala holango esamoldeak eginez: "apunteak supergaizki", "banoa de shopping"... baina, gure helburua

komuniketea besterik ez da. Gainera, garrantzitsuena erregistroak bereizten jakitea da: ez dogu bardin berba egin behar irakaslearen aurrean edo lagunakaz kalean gogozanean. Hiztun bakotzak bere erara berba egiten dau eta inork ezin deutso esan zelan idatzi WhatsApp edo mezu bat.

Amaitzeko, argi dago hizkuntzak beti aldatzen dagozala eta gazte asko euskereari "euskanoñez" hurreratu dakikeola, gehiengo familia erdaldunetakoak dalako eta lagun eta hurrekoen artean erderaz euskeraz baino hobeto moldatzen diralako. Baina, azken finean, inportanteena ez ete da euskeraz berba egitea?

*Moldatua



2015-2016 ikasturteko Arratia Institutuko ikasleen Agur Jaia Lasarte Aretoan.



AGENDEA

ZEZEILAK 1
BEDIA

Zezeilaren 3ra arte, zezeilaren 17tik 19ra Baqueirara eskiatzera joateko izena emoteko epea zabalik. Ganguren Mendi Taldeak antolatuta Udalaren laguntzeagaz.

16:30etik 19:30era, zezeilaren 17ra arte, udalak eraturako ikastaroetan izen emotea liburutegian. Ikastaroak: Soinketa hipopresioa, Josten ikasten (patroiak), Adimen emozionala, Telefono mugikorraren erabilera, Adimen susperketea eta Oroitzapen liburua.

DIMA

Bizi Plaza, plazea diseinetako proiektuaren barruan, Haurren astea eskolan.

IGORRE

17:00etatik 19:00etara, zezeilaren 17ra arte, astelehen, eguzten eta barikuetan martiaren 11n sagardotegira urteerako izena emoteko epea zabalik Gazteria Zerbitzuko bulegoan (Kultur Etxea). 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat. 30 euro personako.

Hilaren 28ra arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Mendirik Mendi argazki erakusketea Kultur Etxean.

LEMOA

Hilaren 9ra arte, Gazteentzako Europako biajean izena emoteko epea zabalik. Udaletxean.

ZEZEILAK 2
AREATZA

16:30ean, Nazioarteko Hezeguneen Eguna dala-eta, umeentzako hainbat ekintza Gorbeia Parke Naturalak antolatuta.

IGORRE

20:00etan, Zine Kluba *Citizenfour* (Laura Poitras, 2014). Lasarte Aretoan.

ZEZEILAK 3
ZEANURI

17:00etatik 20:00etara, Feminismoaren gaur egungo panorama teorikoan kokatzeko mapak ikastaroa Tere Maldonadoren eskutik.

ZEZEILAK 4
ARANTZAZU

09:00etan, Arratiako Korua. Agate Deuna.

AREATZA

08:15ean, Arratiako Korua eta 08:45ean urtekerea.

18:00etan, Santa Ageda bezperako kantuak abesteko alkartu plazan. Amaieran txokolatea egongo da Guraso Elkarteak antolatuta.

20:00etan, The Kozmic Fringe taldearen kontzertua The Quiet Corner-en.

21:45ean, Arratiako Koruaren emonaldien amaierara. Agate Deuna.

ARTEA

21:20ean, Arratiako Korua. Agate Deuna.

BEDIA

17:00etan, alkartu auzoz auzo Santa Agedako koplak kantetan joateko. Plazan.

21:00etan, Arratiako Korua. Agate Deuna.



Jantzaren bidez inguruaren eraginaren gaineko hausnarketea egiten dau Nagare jantza ikuskizunak

Jordi Vilasecaren zuzendaritzapean, The Circle of Trust & Logela taldeko sei jantzariak *Nagare* jantza ikuskizuna eskeiniko dabe zezeilaren 11n, 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan.

Ikuskizuna, jaiotzetik inguruko guztiaren eraginen eta egiten doguzan hautaketen gaineko hausnarketea da. Nagarek eraginak esploratzen ditu, sorburu eta zergaitietan sakonduteko eta erakusteko, horren jakitun izan barik, norbanakook zelan aldatuten doguzan prozesuok.

Ignacio fernandez, David Ventosa, Alberto Pardo, Marcos Pardo, Juan Manuel Aragon eta Víctor Lazaro dira jantzariak.

DIMA

09:15ean, Arratiako Korua. Agate Deuna.

IGORRE

09:30ean, Arratiako Korua. Agate Deuna.

17:00etan, Txirri, Mirri eta Txirribiton junior pailazoan *Patxistein Dokorea* ikuskizuna Lasarte Aretoan.

22:00etan, zinea *Rogue One*, Lasarte Aretoan.

LEMOA

09:45ean, Santa Ageda bezperako kanta kalejireira herritik. Arratiako Korua eskolako patioan; ondoren ibilbidea herrian zehar: San Inazio, Bikandi alkatea, Intzuntza, Kresala, Plaza Gorria, Atxeta plaza. Ondoren, saldea eta txorizo egosia parte hartzaileentzat.

ZEANURI

10:00etatik 13:00etara, Feminismoaren gaur egungo panorama teorikoan kokatzeko mapak ikastaroa Tere Maldonadoren eskutik.

21:35ean, Arratiako Korua. Agate Deuna.

ZEZEILAK 5

BEDIA

Ganguren Mendi Taldeak antolatuta, Alto Campoo-ra eskiatzera joateko urtekerea.

IGORRE

17:00etan, zinea *Canta!*; 19:30ean, *Rogue One*. Lasarte Aretoan.

ZEANURI

12:00etan, mezea Santa Ageda ermitan. Koruak koplak zaharrak kantauko ditu.

ZEZEILAK 6

BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 16ra arte, Madrilera Warmerrera biajerako izen emotea liburutegian. Biajea apirilaren 28tik maiatzaren 1era izango da.

ZEZEILAK 8

DIMA

17:30ean, Abizarie alkartearen sortzeako batzarra: estatutuak onartu, izendapenak egin eta etorkizuneko bidea ebazteko da. Eskolan.

IGORRE

19:30ean, Zaztapparrak Asti Taldearen

asanblada irekia Lasarte Aretoan.

ZEZEILAK 9
IGORRE

19:00etan, jaiak prestatzeko kuadrillen batzarra Kultur Etxean.

ZEZEILAK 10
DIMA

17:00etan, Bizi Plaza, plazea diseinetako prozesuaren barruan, Hizketaldia Nagusiekien jubilatuen egoitzan; 19:00etan, gazteak lan saioa Abaro lokalean.

IGORRE

20:00etan, Igorre kantari kantu-pote. Itargitik hasita.

LEMOA

Hilaren 12ra arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, mendiko eskia eta raketak. Pico Monjes (2.349 m.) Pico Acue (2.258 m.).

ZEZEILAK 11
AREATZA

20:00etan, Dalton & Cosh bikotearen kontzertua The Quiet Corner-en.

ZEBERIO

10:00etan, fruta arbolak inauteko ikastaroa. Plazan. Hizlaria Celestino Aja.

ZEZEILAK 12

IGORRE

17:00etan zinea *Rabbit*; 19:30ean, *Contratiempo* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

San Balendin jaiak Eleizondan, Piedadea ermitearen ondoan. 11:30ean, mezea; ondoren barauskarria (urdaia, pamithea eta ardaoa) txistulari eta trikitilariak eta artearen neurketea.

ZEBERIO

20:00etan, zinea *Una canción del pasado* (AEB, 2004) Eskola Zaharrea.

ZEZEILAK 15

IGORRE

18:00etan, Igorre Eskualdeko Egiturako Paisaiaren Katalogoaren aurkezpena Kultur Etxean.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

ALOKATZEN DA

100 m² dituan lonjea alokatzen da Igorreko erdigunean. Bulego, txoko... edozertarako sano aproposa. Baldintza oso erakargarriak. Deitu 653 745 838 telefonora.

DANERIK

BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldizkariak bazkideak behar ditu. Interesauak 649 979 115 telefonora deitu.

LAN BILA

Etxeak, bulegoak, portalak... eta abar garbitzen dodaz. Kotxeduna. Interesauak 635 207 386 telefonora deitu.

LANGILE BILA

Arantzazurako persona euskaldun baten bila gabiz astebarruan, goizetan, 10 hilabeteko umea haurreskolara eroateko eta astean birritan etxeko garbiketara egiteko. Telf.: 630 439 315.

LAN BILA

Etxe barruko behargin moduan lan bila dabilen neska bat naz. Persona nagusiak

zaindu edo etxeko lanak egiten dodaz. Deitu 622 197 909 telefonora.

ALOKATZEN DA

Jardunean dagoan estetika zentroa alokatzen da Galdakaoko erdigunean. Hartu-emonetarako deitu 94 456 64 57 telefonora.

TIRALARI BILA

Harriti andra proba taldea, taldean parte hartzeako Arratiako andra bila dabil. Eider 639 293 539.

LAN BILA

Bediako neska euskalduna persona helduak edo laguntza behar dabenak jagoteko prest agertzen da. Furgonetaduna. Telefonoa 688 647 074.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Txirri, Mirri eta Txirribiton junior-en *Patxistein Dokorea* ikuskizunerako.

Rafa Ugalde (Dima)
Peru Perez de Anuzita (Areatza)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Circle of Trust & Logelaren *Nagare* jantza emonaldirako.

Pedro Mari Legarreta (Igorre)
Nerea Goioaga (Igorre)



3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 14


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA


1.- Apur. Sufrea. 2.- Bokala. Kitu.
3.- Uranioa. Gaur. 4.- Inesiboan,
aldean, inguruan. Fruta bat. 5.- Uritar.
6.- Bizkaiko ibaia. Landara mota bat.
7.- Haga. Azken bokala. 8.- Errukibako.
Mila erromatar. 9.- Letra bat. Dardara.

GOITIK BEHERA

1.- Umeen berbetan, mosu. Pluralez,
kaskala, hutsa. 2.- Bat erromatar.
Haize indartsu. 3.- Tantaloa. Ilargi.
4.- Aldats. Bokala. Alfabetatze eta
Euskalduntzerako Koordinakundea.
5.- Alperdo. Nora atzizkia. 6.- Amaitu.
Konsonantea. 7.- Mexikoko estadia.
Birritan, umeen berbetan, ura.




Topau baloi eta pelota bako kirolen zazpi izen.



AKI MI KO

Zorrozkiilo



umeen moda
sew
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnua. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten
dogu. Bizarna egin eta buzkunduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

AKITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TLF. 94 631 92 00

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIB ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnua: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@telefonet.net

ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
ZUZENBIDE
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
ABOKATUAK:
ZUZ. ZIBILA
KONTSUMO ZUZ.
ADMINISTRATIO ZUZ.
INGURUGIRO ZUZ.
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: urrozul@euskalnet.net

Igorrekoa da AVIA Adenor sareko lehenengo gasolindegia

Gaur egun 33 gasolindegia kudeatzen ditu eta 2021ean 145 izango dira.

AVIA Esergui taldeak, petrolioaren merkaduan leku propioa Esergui SA, (Gipuzkoako gasolinaz-zerbitzuguneak) 1981ean sortu zan, gasolinaz-zerbitzuguneen sektoreko enpresari talde independente baten petrolioaren merkadu konplexuan leku propioa eskuratzeko ebatzi ebanen. Horrelaxe sortu zan filosofia barrizalea eta urrunerako ikuspegia biltzean zituan enpresa, multinazional handien ordeztu aukera sendoa izan gura eban. Hiru urte geroago, 1986an, Eserguik AVIAGaz batzea ebatzi eban, marka horren pean jardun eta haren lidergoan laguntzeko asmoz.

Gaur egun, AVIA da nazino mailako petrolio operadore independente nagusienetako bat. Gasolinaren azken hornitzaileari zuzendutako banaketa eta hornikuntza sare zabala dauka, nekazaritzan, automozinoan, industrian eta berokuntzan erabilteko. Gainera, 168 gasolinaz-zerbitzugune ditu 31 probintzian. Taldea, estaduko 7. petrolio-operadorea da eta urtean 700 milioe euro fakturretan ditu.

Enpresa honen diru kapitalaren % 98a Euskal Herrikoa da.



AVIA Internazionala, 14 herrialdetan

AVIA Esergui 1988an AVIA Internazionalera atxikitu zan. Gaur egun, Europan 3.500 gasolinaz-zerbitzugune ditu AVIA Internazionalak Europako 14 herrialdetan eta miloeka bezerori emoten deutso zerbitzua.

AVIA Suitzan jaiotako enpresari independente talde bat bildu zanean petrolio-konpainia handien artean leku propioa eskuratzeko. "Bilduta indartsuagoak gara" lemapean, enpresariak banan-banan konbenziduten joan ziran AVIAren ikurraren pean 3.500



gasolinaz-zerbitzugune bildu arte.

Gaur egun, sareak Alemanian, Belgikan, Bulgarian, Espainian, Frantzia, Italian, Herbehereetan, Austrian, Polonian, Portugalen, Hungarian, Suitzan, Serbian eta Txekiar Errepublikan ditu zerbitzuguneak, eta 80 konpainiak baino gehiagok osotuten dabe sare. Baina ku-

deaketa autonomia mantenduten dabe bazkideak.

Bihotza Zierbenan...

AVIAren bihotza Zierbenan dago. Hango plantak, 220 milioe litro biltzeiratzeko kapazitatea dauka, 45.000 m²ko guztiz automatizaturako instalazinoetan. Planta hau



Muskizko Petronor findegira eta CLH sarera dago konektatur oriotan bitartez. Gainera, itsasontziak porturatzeke lekua dauka 1.000 tona arte.

Erregaia Petronorretik zein itsasontzietatik deposituetara sartutakoan, gasoil eta gasolinari potentzia handia emoten deutsean gehigarriak sartzean deutsean Zierbenan eta hango deposituetan gordetzen da gasolinaz-zerbitzuguneetara eroan arte.

...AVIA Adenor-en burua Igorren

Bihotza Zierbenan dauka AVIAk; burua, barriz, Igorren. Izan be, AVIA Adenor sareko lehenengo gasolindegia Igorrekoa izan zan eta hortxe dauka egoitza soziala.

AVIA Adenorrek Esergui taldearen alokairuko gasolinaz-zerbitzuguneak kudeatzen ditu, 33 gasolinaz-zerbitzugune hain zuzen be. Erregaia Zierbenako plantatik ekarritakoa da, kalidade maila gorenekoa.

Baina konpainiaren Plan Estrategikoak, 2021ean, 145 zerbitzugune kudeatutea aurreikusten dau. Erronka handi hori aurrera aterateko, etorkizunari begira jarri da AVIA eta bere jardun eremuak zabaltzeko egin ditu. Holan, autorako eta etxerako ingurumena jagoten daben erregaia ekoizten ditu. Izan be, enpresarentzat zein ingurumenerentzat etorkizun garbia gura dau AVIAk.

Auto eta etxerako erregaia

Gasolinaz-zerbitzuguneetan, gasolin banaketan, lubrifikatzaileen arloan, ISXXI nazinoarteko garraio txartelean, eta beste erregai batzuk ekoiztu eta komertzializetan jarduten dau AVIAk egun. Auto eta etxerarako erregai barrien aldeko apustua egin dau eta pelleta eta GLPa komertzializetan ditu.

Gasolina eta gasa erabilten daben kotxeai zerbitzu osoa emoteko, AVIAko zerbitzuguneetan GLPa, ibilgailuentzako gasa, saltzean da. Etxean be erregai garbia gura izan ezker, pelletak eskeintzen dau AVIAk. Etxeko galdaretarako erregai moduan erabilten da pelleta: %100 egurra da, hondakin toxiko eta gehigarri bakoa, biomasatik eratorritako produktua.

Izan be, modurik garbienen saiatzen da AVIA konsumo beharri-zanai erantzuten.

Etorkizuna garbia izan daiten.